

GAZTEOK NON?

*etxebizitza eta gazte
emantzipaziorako
proposamen bat*





2021eko martxoan

ernai.eus

harremanak@ernai.eus

GAZTEOK NON?

*etxebizitza eta gazte
emantzipaziorako
proposamen bat*

Etxebizitza, pertsoneri aterpea eskaintzea funtzio duen eraikuntza gisa definitzen da eta bizi proiektu bat garatu ahal izateko oinarritzko eskubidea da. Gaztaroan, **bizi proiektu bat garatzeko lehen urratsak ematen dira**. Familiaren etxetik emantzipatu eta burujabetza lortu ahal izatea garrantzitsua da bizitzako etapa honetan. Beraz, gazteon emantzipazio prozesuaren baitan, bizitzako esparru ezberdinetan autonomia lortu ahal izateko lehentasunezkoa da etxebizitza eskuratzea, kontrara, dependentziaren atzaparretan trabatu eta frustrazio askoren ondorioz, bizi proiektu duin bat garatzeko ezintasuna nabarmentzen delarik.

Bizitza duin bat ahalbidetzeko behar nagusienetarikoa izanik, giza eskubide bezala onartu zen aurreko mendean. Eusko Legebiltzarrak eta Nafarroako Gobernuak, etxebizitza eskubide subjektibo bezala irudikatu dute azken urteotan. Behar edo eskubide gisa definitzen bada ere, aurrerago aztertuko dugun bezala, Euskal Herrian, beste hainbat herrialdetan bezala, behar hau asetzea jabego pribatuarekin loturan irudikatzen da.

Ernai gazte antolakundeetan urteetan zehar landu dugu etxebizitzaren eta gazteon emantzipazioaren gaia, izan lanketa propioetatik edota gazte mugimenduetako espazioetan gure militantziak ekarpena eginez. Etxebizitza proposamen kualitatibo honekin, orain arteko lanari beste ekarpen bat egiteko asmoa dugu, hurrengo urteetan etxebizitzaren gaiarekin pil-pilean egongo diren eremuetan ekarpena egin nahi asmoz eta problematika honen aurreko borrokari ekarpena egiteko anbizioz. Ernairen proposamen honen bidez, gure xedea da hurrengo urteetan erdigunean egongo diren gakoak ondo identifikatu eta kokatzea, eta horiek lantzeko lehenengo oinarriak jartzea. Momentuz proposamen eta kanpaina bat bakarrik definitu dugun arren, antolakundeak etxebizitzaren problematikaren eremuan ekarpen kualitatibo baten bitartez, eremu honetako etorkizuneko lan lerro nagusiak zabaltzera goaz, eta bide horretan, baita ere antolakundea eremu honetan prestatzen eta trebatzen jartzera goaz.

- ⇒ **Alokairuaren arautzearen inguruko eztabaida agendan kokatzea**, eta borroka hau gazte mugimenduek eta etxebizitza mugimenduek lehentasunezko zatik kokatzeko ekarpena egitea. Borroka honi, eta aldarrikapen honen edukiei ekarpen kualitatiboa eginez, eta hau sozializatuz.
- ⇒ Etxebizitzaren-alkairuaren, eta, zehatzago, **gazteok emantzipatzeko ditugun zailtasunen sozializazioa eta problematizazioa** egitea.
- ⇒ **Borroka lokalak hauspotzea**: epe motzean Ernaitik egiten ditugunak, baina baita horiek gazte mugimenduetan edo herri mugimenduetan egon daitezkeenak hauspotzea edo berriak sortzeko lan egitea: alokairuaren arautzearen alde, udalgintzarako proposamenen aldeko borroka edo egitasmoak artikulatuz, etab.
- ⇒ Etxebizitzari dagokionez **antolakundearen posizioa, aldarrikapenak eta kokapena gaurkotzea**; eta antolakundea eremu honetan jarduteko trebatzea.

ETXEBIZITZA MERKANTZIA GISA

Sistema kapitalista heteropatriarkalean, merkatuak etxebizitza lortzeko eskaintzen digun aukera bakarra, alokatu edo erostea da. Kapitalaren zirkulazioaren logikan sartzen dira bi aukera horiek, merkatuaren etengabeko irabaziak bilatzeko helburuarekin. Beraz, **etxebizitza merkantzia bilakatu** da, hau da, irabaziak lortzeko espekulazio-tresna huts bihurtu da. Hori horrela, sistema honen baitan etxebizitza eskubide gisa ez dago inola ere bermatua.

Are gehiago, finean, higiezinetan dirua inbertituz, inbertsioaren errentagarritasuna eta segurtasuna jakinda, etxebizitzaren prezioa artifizialki igotzen da. Hala, espekulazio inmobiliarioa sustatuta, hirien moldaketaren bidez, klase sozialen segregazioa areagotzen da. Beraz, zorpetzea, pobretzea eta dependentzia areagotzeak zuzenean eragiten du zenbait herri sektoretan; bankuen, eraikuntza enpresen, errentisten eta inbiliarrien mesedetan.

Egitura oso baten babesarekin merkantilizatu da etxebizitza. **Funts putreak eta bankuak dira eskubide hori ez bermatzearen katebegietako bat**, kapitalaren mesedetan herri sektoreak pobrezia kondentzen dituztenak, etxebizitzaren prezioak neurrigabe igota. Baina **zenbait instituzio edota gobernuk ere erantzukizun osoa dute**, egoeraz jakitun badi-ra ere, ez dituzte neurri eraginkorrak planteatzen. Finean, jendarteko zenbait sektoretan etxebizitzarako eskubidea ez bermatzean, estatu egituren esku hartzea beharrezkoa da, gizartearen sektore kolpatuenak bizitza duin bat garatzeko ezintasunean kokatzen baitira. Beraz, estatuen erantzukizuna da neurriak hartuz, gizartearen ongizatea bermatzea.

Gaindegiak eskaintzen dituen datuen arabera, 2008an eztanda egin zuen krisi finantziario eta ekonomikoaren ondorioek zuzenean eragin zuten Hego Euskal Herriko etxebizitzaren prezioan eta alokairuaren bilakaeran. Garai hartara arte, etxebizitzaren salneurria etengabeko hazkundea bizitzen ari zen, espainiar Estatuko higiezinaren burbuilaren testuinguruarekin loturan. 2008. urte bukaeratik 2016. urtera bitarte, etxebizitzaren prezioa apalt-

zen joan da, baina behea jo zuenetik berriz ere goranzko joera nagusitzen ari da. Etxebizitzaren alokairua, aldiz, etengabeko hazkundean mantendu da urte hauetan guztietan.

Azken urteotan etxebizitza problematika areagotzen joan da. Etxebizitzaren prezio altuak eta gizarteko sektore askok bizi duten prekarietate egoerak zaildu egin du etxebizitzarako eskubidea bermatzea, bizi-proiektu duinak aurrera eramanez. Honekin guztiarekin loturan, zenbait lurraldetan, espainiar Estatuan kasu, sistema publikoaren esku hartze falta nabaria izan da. Hala, etxebizitza, jendartearen lehenetsi beharreko eskubide gisa baino, kontsumitzen den produktu gisa irudikatu da.

Europako beste herrialde batzuetan, etxebizitza publiko eta sozialaren aldeko apustua egin da, alokairuaren araubidea erdigunean kokatuz, Alemanian eta Suitzan kasu. Espainiar Estatuan, Europa hegoaldeko beste lurralde batzuetan bezala, laguntza/prestazio sozialak jabetza pribatua indartzen duten logikan kokatu izan dira. Logika horrek, gizartearen joerak zein beharrak baldintzatzen ditu eta gizartearen tendentzia bilakatzen du etxebizitza baten jabetza lehenestea. Horren adibide da Babes Ofizialeko Etxebizitzaren eskaintza zabala espainiar Estatuan, aipatutako logikarekin bat, salerosketan oinarritzen diren etxebizitza sozial pribatuak baitira.

Gainera, Gaindegiak eskainitako datuetan ikusitakoaren arabera, azken urteotan etxebizitza merkatuak izandako aldaketen ondorioz, etxebizitzaren alokairuaren garestitzea agerikoa izan da. Krisiaren lehenengo urteetan etxebizitza salerosketak murrizteak alokairuko etxebizitzaren garestitzea eragin zuen, ondoren prezioak egonkortu eta 2017 urtetik gaur arte, prezioen gorakada nabarmena izan da. Bestalde, alokairuko etxebizitza parkearen presentzia ez da oso zabala gure lurretan. Erabilera iraunkorra duten Euskal Herriko etxebizitzaren %16,3 alokairuzkoak dira. Hego Euskal Herrian %13,5 dira halakoak eta Ipar Euskal Herrian %38,7. Bi errealitate ditugu beraz Euskal Herrian.

Hala, eskuragarriagoa da etxebizitza bat jabetzan izatea alokairuan bititzea baino. Beraz, **jabetzaren kultura nagusitzen ari da** Euskal Herrian, alokairuzko parkea txikia eta prezioen gorakada handia izanik, merkatuaren logikak etxebizitza jabetzan eskuratzearen aukera indartzen du. Analisisirako baliaitutako datuen artean, adierazgarria da gazteen gehiengoak haien bizitzak hipotekatzea lehenesten duela, aipatutako joera baieztatuz. Hortaz, etxebizitza jabetzan eskuratzea, kulturalki oso barneratuta dugun joera da eta etxebizitza erosteko aukera izan arte, alokairua aldi baterako irtenbidetzat hartzen dutenen kopurua areagotzen ari da.

Etxebizitzaren problematika, herri sektore pobretuenetan, oro har, eta gazterian, bereziki, bizi dugun prekarizazio prozesuarekin lotuta ulertu behar dugu. Batetik, **enpleguan esplotazio zorroztu** dute eta prekarizazio modu berriek langileria osoa mehatxatzen dute, gazteria neurri prekarizatzaileak inposatzeko lehen katebegi bezala erabiltzen dutelarik. Soldata miserableak, kontraturikezizatea, praktikakontratuak, azpikontratazioa, autonomo faltsuak... horren erakusle dira. Bestetik, gazteen formazio eta **ikasketa zikloa luzatu** da, ikasiz gero etorkizun hobe izango dugula sinestarazi nahi izan digutelako. Beraz, emantzipatzeko aukera bi aldagai hauek zeharkatuta ulertu behar dugu, baita **etxebizitza eskuragarritasun ezak** baldintzatuta ere.

Baldintzak horiek izanda eta etxebizitzaren espekulazio zirkulu osoa kontuan hartuta, gazteoi ordaintzen zaigun soldataren zati handi bat etxebizitza ordaintzera bideratzen dugu, gutxi batzuek irabaziak biderkatzen dituzten bitartean. Gazteen Euskal Behatokiaren arabera, Euskal Autonomia Erkidegoan alokairuan emantzipatutako 18-34 urte bitarteko gazteok, batzuek beste, ordaintzen dugun errenta 615€-koa da. Hau horrela, gazteen hamarretik ia lau (%38)

gehiegizko esfortzu ekonomikoko egoeran bizi gara, gure diru-sarrerren %40 baino gehiago errenta ordaintzeko erabiltzen dugularik. Kontuan hartuta 25 urtetik beherako gazte baten urteko soldata 14.264,80€ gordinetara dela, ezinezkoa bihurtzen da emantzipatzeko aukera.

Nafarroaren kasuan, Nafarroako Gazteriaren Kontseiluak eskainitako datuen arabera, 16-29 urte arteko gazteen artean, gure soldataren %45 baino gehiago etxebizitza ordaintzera bideratu behar dugu. 25 urtetik beherako gazteen batzuetan besteko urteko soldata 13.567,95€ izanik, egoera zailagoa da oraindik ere adin tarte horretan. Beraz, datuak ikusita, gazteok alokairuaren errenta ordaindu ahal izateko dugun zailtasuna agerikoa da.

Euskal Herriko egoera orokorrari dagokionez, Ipar Hegoa Fundazioak aurreko urtean egindako analitiko ateratako datuen arabera, Euskal Autonomia Erkidegoan, alokairuaren prezioaren batzuetan bestekoa 960€ ingurukoa da, beraz, pertsonon soldataren ia %50 bideratzen dugu etxebizitza ordaintzera. Emakumeon kasuan, %60tik gertu dago etxebizitzan egin beharreko inbertsioa. Nafarroaren kasuan, aldiz, alokairuaren prezioa batzuetan beste 680€ inguruan kokatzen da eta soldataren %35 inguru bideratzen da alokairua ordaintzera. Hortaz, egoera larri baten aurrean aurkitzen garela eztabaida ezina da eta datuen arabera, goranzko joera duen arazoa da.

Emantzipazioarako zailtasunak azken urteotan mantendu egin dira. Euskal Autonomia Erkidegoko 15-29 urte bitarteko gazteen %45,6 emantzipatzeko nahia burutu ezinean dabil. Ezintasun hau oso nabarmena da, esaterako, 20-24 urte bitartean, %56,6koa baita. Hau horrela, Hego Euskal Herrian **emantzipazioarako batzuetan besteko adina 30 urteen bueltan kokatzen da**, Ipar Euskal Herriko kasuan aldiz, 23 urteren bueltan.

Hego Euskal Herriko emantzipatzeko batzuetan besteko adina, Europakoarekin alderatuz, oso altua da, 26 urteren bueltan kokatzen baita. Hala ere, Dinamarka edo Suedian 19-20 urteren bueltan kokatzen da gurasoen etxea uzteko prozesua. Eskandinaviako herrialdeetan gazteek laguntza publikoak izaten dituzte haien bizi proiektuak abiatzen hasi ahal izateko. **Hego Euskal Herrian, gazteen emantzipazio berantiarra** aspaldiko fenomeno da eta azken urteotan areagotu besterik ez da egin. Lehen esan bezala, etxebizitza eskuragarritasun ezak, ezegonkortasun ekonomikoak eta ikasketen prozesua luzatzeak baldintzatuta bizi garenez, **emantzipatzea ezinezko misio** bihurtu da.

Honez gain, emantzipazio berantiarra, Mediterraneo inguruko herrialdeetako fenomeno izanik, Europa hegoaldeko estatuak emantzipatzeko eskainitako ereduaren ondorio gisa ulertu behar dugu. Eremu horretan, ongizatearen araubide nahiko ahula duten herrialdeak kokatzen dira eta gazteak pobrezia egoeran dauden sektore gisa identifika daitezke. Honek guztiak, etxe-familiarrarekiko dependentzia areagotu eta emantzipatzeko zailtasuna handitzen du. Azken finean, guraso edo tutoreek sostengatzen dituzte milaka eta milaka gazte ongizate estatua deritzon, zeintzuk emantzipatuta egongo balira, zuzen-zuzenean pobrezia egoeran leudeke. Honi, "ezkutuko pobrezia" deritzogu. Perspektiba hau mahai gainean jartzea garrantzitsua da, gazteen benetako larrialdi egoera erakusten baitu.

Belaunaldi gazteok etxebizitza eskuratzeko zailtasunei, etxebizitza turistikoak agertzen direnean, hiriguneetan ematen ari diren **gentrifikazio prozesuak** gehitu behar zaizkie. Alokairuaren prezioaren igoerak ez ezik, eta udarako hilabeteetan prezioaren gorakada izugarri edota alokatzeko aukerarik ez izateak, gazteontzat eskuragaitz bihurtzen dituelako zonalde horiek. Etxebizitza eskuratzeko, hiriguneetako etxebizitza merkatuaren presioak, **gazteok metropoliaren periferia geografikoan kokatzen gaitu**. Horrez gain, hiriguneetako hazkundearen



ondorioz, hirigune handietako inguruko hainbat herri eta auzok izaera guztiz erresidentziala hartzen dute kasu batzuetan. Hau da, etxebizitzak eraikitzen dira, baina bizitzarik gabeko herri eta auzoak sortuz (komertziorik, ostalaritzarik edota bizitza sozialik gabe). Zalantzarik gabe bizitza eta komunitatea erdigunean jartzen ez duen eredu kapitalista bati erantzuten dio horrek.

Kontrara, **herri txikietan hustutze prozesuak** ematen ari dira eta horietan ere arreta jarri behar da. Euskal lurraldearen fluxu ekonomiko eta soziala hiriguneetan zentratzen ari denez, herri txikietan ikasi, lan eta bizitzeko aukerak murriztak dira. Gainera, askotan, herri eta eskualdeen arteko loturak bermatzeko garraio publikoaren zerbitzua eskasa izaten da. Ondorioz, herri txikietako populazioa beheranzko joeran da etengabe, lurralde oreka apurtuz.

Bi joera horien katebegi bezala kokatu dezakegu erabilera iraunkorrik ez duten etxebizitzaren ardatza, hau da, etxe hutsen eta erabilerarik gabeko bigarren etxebizitzek osatzen dutena. Hirigune zein herri txikietan, etxe hutsen edota erabilerarik gabeko bigarren etxebizitzaren kopurua handia da, tokian tokiko ezaugarrien arabera, bata ala bestea. Euskal Herriko etxebizitza parke osoaren %17,44 dira erabilera iraunkorrik ez duten etxebizitzak, hau da, 270.724 etxebizitza. Hori horrela, jende askok etxebizitza ziurtatzeko aukerarik ez duen bitartean, erabilera iraunkorrik ez duten etxebizitzak daude, kasu batzuetan, negozio edota espekulaziorako tresna gisa erabiliz.

Aipatutako guztiak ikusarazten digu gazteok etxebizitza eskubidearen ukapena oso modu gordinean pairatzen dugula. Gainera, Covid 19ak irekitako krisi sanitario, sozialeta ekonomikoarekin, gazte eta langile sektore pobretuenak are egoera zaurgarriagoan kokatzen gara. Diru iturriak murriztu edota desagertu zaizkigu, gure ohiko enpleguak desagertu edota murriztu direnez, kaleratuak izaten lehenengoak garelako. Ondorioz, **etxebizitza lehentasunezko arazo** bihurtu da, jendartearen zati handi bat baitabil alokairua edo hipoteka ordaindu ezinik, etxe-kaleratze arriskuan. Gazteon kasuan, egoera hau ikusezinago bihurtzen da, alokairua ordaindu ezinik gabiltzanean, familiaren etxera itzuli ohi garelako eta ez delako etxe kaleratzerik gauzatzen.

Gazteon eta herri sektore pobretuenen bizitzak ezegonkortasunak zeharkatzen dituelarik, gure beharrak asetzeko bide propioak bilatu behar izaten ditugu. Hortaz, **okupazioa irtenbide gisa** kokatzen dugu, etxebizitzaren eskuragarritasun ezaren aurrean dagoen alternatiba errealean faltagatik, hautu legitimo bezain beharrezkoa iruditzen zaigu. Udal gobernu eta instituzio ezberdinek etxebizitza eskubide gisa ulertu beharrean, merkatuaren mesedetan jokatzeko dutenez, okupazioa kriminalizatu eta komunikabideen laguntzaz irudi desitxuratu bat salduz, kaleratzeak gestionatzen dituzte.

Covid 19ak sortutako testuinguruan, jendarteak bizi duen egoera zaurgarriaren aurrean, okupatutako zenbait espaziotatik bota dute jendea, kale gorrian utziz. Jendearen bizitzak arriskuan jarriz, alternatiba duinak eskaini beharrean, okupazioa zigortu dute. Eliteek eskatzen dutenaren kontra, erabilerarik gabeko etxeen **okupazioaren despenalizazioa** beharrezkoa da, inoiz baino gehiago garaiotan, emantzipatzeko alternatiben faltan irtenbide bakarra baita gizarteko sektore askorentzat.

Testuinguruaren analisi labur honen ondoren, argi geratu da emantzipatzeko ezintasuna gazteon eguneroko ogia dela. Bizi dugun egoera prekarizatuak ez digu heldu boterea alboratuz, gure bizi proiektuak modu duin eta burujabean garatzeko aukerarik ematen. Gure aldarria oinarritzakoa da, etxebizitza eskubidea herritar oroentzat izan behar du.

Ortizimuga urrun kokatzen dugu, ordea. **Eguneroko lanean borrokatzen dugun Euskal Herri sozialista eta feminista etxebizitza pertsona guztien eskubide izango da. Etxebizitza bera, berdintasunezko gizartea eraikitze-ko tresna izan daiteke:** zapalkuntzarik gabeko gizartera bidean, pertsona eta kolektibo ororen beharri erantzungo dien etxebizitza ereduaren alde lerratzen gara, beraz.

Esan bezala, ortzimuga askatzailea kokatzeak, etsipenetik urrun, gaurtik borroka egiteko anbizioa eta indarra dakarkigu. Hori horrela, gaur gaurkoz etxebizitza eskubide bilakatze-ko bidean gure ekarpena egin, eta Euskal Herriak zein gazteriak eraldaketa sozialera bidean politika ausartak behar dituela exijitzen dugu. Bizi proiektuak era duinean garatu eta etxebizitza eskubidea bermatzeko, **politika eraginkorrak eta neurri ausartak behar ditugu!**


ETXEBIZITZA POLITIKAK

Gazteok zer aldarrikatu?

Etxebizitza duin, eskuragarri eta irigarri bermatuko duengizartea aldarrikatzen dugu, etxebizitza eskubide subjektibo gisa hartzen duena. Erakundeek horrela onartu eta bide horretan urratsak eman beharko lituzketela exijitzen dugu. Norabide horretan, **egoera zaurgarrian dauden pertsonen etxegabetzeak gelditu behar dira**, eta hori berehala eta aitzakiarik gabe izan behar da, are gehiago gaur egungo krisi anizkoitzaren testuinguruan. Gauzak horrela, bi aldarrikapen horiek etxebizitza herritar orori bermatzeko tresnatzat ulertzen ditugu; eta horrez gain, gazteon emantzipazioa bultzatzeko mekanismo ere bilakatu behar direla ulertzen dugu.

Gainera, bada azpimarratu nahidugun beste auzibatere, etxebizitza eta etxebizitza politikek bizi ereduarekin duten harremana. Etxebizitza politiken lehentasuna pertsona guztiak etxebizitza duina izatean eta gazteon emantzipazioa bultzatzean kokatzen dugu, are gehiago Covid-19ak sortutako krisi sozioekonomikoaren aurrean, baina **sistema kapitalista heteropatriarkalitik eta familia eredu nuklearretik kanpo kokatzen diren etxebizitzak eta etxebizitza politikak behar ditugula deritzogu, auzi hau etxebizitza politika orotan modu transbertsalean ulertuz.**

ALDARRIKAPENAK

 Etxebizitza eskubide subjektibo gisa onartzeaz gain, aplikaziorako neurri zehatzak!


Inor ez etxerik gabe: etxegabetzeak gelditu! 

 Gazteon emantzipaziorako politika eraginkorrak eta neurri ausartak.

Alokairu soziala eta etxebizitza publikoak. Parke publikoa handitu! 

 Alokairua mugatzeko neurriak: berehala! Merkatua mugatzeko ezinbesteko tresna.

Okupazioaren despenalizazioa 

 Alokairua ordaindu ahal izateko gazteontzako diru laguntzak. Alokairura gazte batean diru sarreren %15a gehienez.

Bestelako etxebizitza eredu edo proiektuak sustatzea: bizi eredu komunitarioa oinarri. 

ALOKAIRUA ERREGULATU LEGEAREN ALDARRIKAPENA ERDIGUNERA

Etxebizitza politikak Euskal Herrian eta alokairuaren arautzea nazioartean

Azken urteetan etxebizitzaren problematikak eta honi eman beharreko aterabideen inguruko eztabaidek pisua hartu dute nazioartean zein Euskal Herrian. Europari begira, Alemania, Danimarka eta beste herrialde batzuetan agenda politikoko gai nagusietako bat bilakatu da etxebizitzarena, eta ezkerreko sektore ezberdinek zein mugimendu sozialek lan eremu gisa hartu dute gaia. Herrialde Katalanak (printzipatuan batez ere) dira Euskal Herritik erreferentzia nagusia. Bertan, etxebizitza mugimendu indartsu baten iniziatibaz, iazko udazkenean Etxebizitza Lege berria onartzea lortu zuten, ERC, PdeCat, ECP eta CUPen aldeko bozkekin. Lorpen historiko gisa izendatu da, Katalunian eta baita estatu mailan ere, eta epe laburrean herritarren bizi baldintzetan eragiteko gaitasuna du legeak, inoiz baino beharrezkoagoa den krisi sistemiko honetan. Era berean, espekulazioari aurre eginez merkatu askearen aurkako neurria ere bada, funts putre, jabego handiak, espekulatzailak eta eskuineko alderdien oposizioak adierazten duen moduan.

Kataluniako azken elementu bat ere interesgarria da: legearen bultzatzailea nor den eta zein alderdi edo eragile politikok babestu duen. Lehenengoa, legearen bultzatzailea, etxebizitza mugimendu indartsu eta artikulatu bat da. Bigarrena, alderdi independentista guztiak (ERC, gaur egungo Junts eta CUP) eta ECP. Burujabetzaren aldeko alderdiak beraz. Gauzak horrela, ezkerria eta independentismoa dira eraldaketa sozialaren motorra.

Euskal Herrian bitartean, etxebizitzaren problematikaren baldintza objektiboak larritzen joan diren heinean (datu guztiek hori diote, eta orain gainera pandemiak sortutako krisiaren ondorioak pairatzen hasi gara dagoeneko), baldintza subjektiboek ez dute larregi laguntzen: hau da, gaia gutxitan kokatzen da agenda publikoan, eta arazoa problematizatuta egotetik urrun dago. Finean, etxebizitzaren inguruko arazoa larria da, baina ez dago batere problematizatuta eta politizatuta, agenda politikoaren erdigunetik oso urrun.

Nafar parlamentuari dagokionez, 2013an onartu zen etxebizitza legea, eta eraldatzailea izatetik urrun egon arren, auzitegi konstituzionalak hainbat artikulua botatu zituen atzera. Eta jakina, herri sektoreen bizi baldintzak hobetzen laguntzen zuten artikulua izan ziren horiek: etxegabetzearen aurrean emergentzia sozialean dauden pertsonak babesteko bideratutakoak alegia. Finean, **burujabetza falta, eraldaketa sozialean aurrera pausuak emateko.**

EAE-ri dagokionez, 2015. urtean Eusko Legebiltzarrak etxebizitza lege berri bat egitea proposatu zuen, eraldatzailea izango ez zen arren etxebizitzaren parke publikoa handitzeko helburua izan zuen eta ordura arteko legerik "aurrerakoiena" bihurtu zen. Lasterrera, Auzitegi Konstituzionalak atzera botatu zituen legearen hainbat artikulua. Euskal Herriaren burujabetza eza eta horren ondorioz aurrerapen sozialak egiteko ezintasuna agerian geratu zirelarik. Zoritxarrez, eztabaida politiko eta sozialean ez zuen oihartzun handirik izan auzi honek, nahiz eta burujabetza ezak gazte, langile eta herri sektoreen bizi baldintzetan zuzen-zuzenean eragin zuen.

EAEko 2015eko Etxebizitza Legearen zati bat onartu zen arren, beste arazoetako bat, Eusko Jaurlaritzak bere aplikatzerako orduan izan duen utzikeria izan da. Parke publikoa handitzeko tresna berriak egon arren, ez du horiek erabiltzeko hauturik egin. Eta etxebizitza eskubide subjektibo gisa onartu arren, **hori praktikara eramateko pausuak ere hutsaren hurrengoak izan dira, espekulazioa ahalbidetu eta ogi apurrak diren prestazioak eskainiz soilik.**

Finean, etxebizitza legeen inguruan ondorioztatu daitekeena da, auzitegi konstituzionalak indargabetutako artikulua eskubide sozialak bermatzen dituztenak zirela: etxebizitza eskubide subjektibo bilakatzea, etxebizitzaren funtzio soziala, eta hutsik dauden etxeen desjabetzeak arautzen zituzten artikulua indargabetu baitzituen. Ere honetan guztiz nabarmena delarik burujabetzaren beharra eraldaketa soziala bultzatzeko.

Euskal Herrian etxebizitza mugimendu eta mugimendu sozialek soilik bermatu ahalko dute alokairuaren arautzea ahalbidetuko dituen pausuak ematea; izan lege bat onartzeko zein betearazteko. Hori ere nahikoa izango ez dela jakitun, eta etxebizitzaren problematikari konponbidea emateko beste hamaika ertz erreparatu beharko zaien arren (okupazioaren despenalizazioa, balio komunitarioetan oinarritutako alternatibak, etab.), alokairuaren arautzera bidean pausuak ematea garrantzitsua izango da, eta gazteok bide horretan gure alea jartzeko konpromezua dugu. Jakina, etxebizitza mugimenduko kideekin, herri mugimenduekin, sindikatuarekin eta bestelako eragile sozialekin batera eta elkarlanean.

Proposamen honekin orain arte egindako lan guztiari beste bultzada bat eman eta ekarpena egitea dugu helburu. Hurrengo urteetan gure iritziz auzi honen erdigunean egongo diren gakoak identifikatu eta kokatzea, eta horiek lantzeko oinarriak jartzea bultzatu nahi dugu. Hurrengo helburuak ditugu:

- ⇒ **Etxebizitza eskubide bilakatzeko bidean eta gazteon emantzipazio eskubidea bultzatzeko bidean ekarpena egitea.**
- ⇒ **Alokairuaren arautzearen inguruko eztabaida agenda politiko eta sozialean kokatzea.** Borroka honi, eta aldarrikapen honen edukiei ekarpen kualitatiboa eginez, eta alokairuaren arautzearen garrantzia sozializatuz.
- ⇒ **Euskal Gazteriari dei egitea emantzipatzeko eskubidearen eta etxebizitza eskubidearen alde antolatu eta borrokatzeko: gazte mugimenduetan, etxebizitza mugimenduan, etab.**

Alokairuaren arautzea

Etxebizitza eskubidearen eta gazteon emantzipazioaren aldeko borroka ertz asko dituela jakitun izanda, gure iritziz **alokairuaren arautzea gaur gaurkoz garrantzia bereziko auzietako bat da**. Hori baita momentu honetan urgentziazko egoerari erantzuteko aukerarik egokiena eta ezinbestean eman beharreko pausua. Eta hainbat dira horren arrazoiak:

- ⇒ **Etxegabeteen kontrako neurri ere bilakatzen delako.** Gehienak alokairua ez ordaintzeagatik egiten baitira: 2019an 1372 etxegabete egin ziren Euskal Herrian, eta horietatik 1068 alokairuari lotuta zeuden.
- ⇒ **Funts putreei eta kapital finantzioari aurre egiteko mekanismoa delako:** alokairua arautuz, gehieneko alokairua ezarri eta zigorren bidez; gaur egun merkatu askearen atzaparretan dagoen etxebizitza sarbidea arautzea delako etxebizitzaren espekulatzaleei aurre egiteko neurri egokiena.
- ⇒ **Alokairua sarbidea errazteko delako:** etxebizitza sarbidea, eta **gazteon kasuan emantzipatzeko aukerak nabarmen areagotuko** lituzkeelako, gazte, langile eta herri sektoreen bizi baldintzak hobetuz.

Borroka honek gizarte osoari eragiten dio, eta hori gutxi balitz, **gazteriarentzat lehenetsutako behar gisa kokatzen dugu**. Euskal Herrian emantzipazio adina eta alokairua ordaindu edo etxebizitza bat erosteko zailtasunak zeintzuk diren kontuan hartuta, problematika honek gazteon bizitzan hartzen duen pisua ikaragarria da. Gainera, eta lehenago ikusi dugun moduan, gazteok bizi proiektu eta bizitza burujabe bat garatu ahal izateko, ezinbestekoa dugu etxebizitza eskubidea bermatuta izatea.

Gauzak horrela, bi helburu ditugu alokairuaren arautzearen inguruko aldarrikapenarekin:

- ⇒ **Batetik, problematika sozializatu eta etxebizitzaren erregularizazioaren beharra agenda politikora eramatea bultzatzea.** Euskal Herrian lehen mailako arazoa da etxebizitzarena, eta are nabarmenago gazteriari dagokionez. Gauzak horrela, gure ekarpena egin nahi dugu, beste hainbat eragilek egin duten moduan, alokairuaren arautzeari begirako eztabaida sustatu, gai hau sozializatu eta agenda politiko eta sozialera eramate bultzatuz.
- ⇒ Bigarrenik, hori lortzeko **sinergiak eta adostasunak eraikitzeko beharra** ikusten dugu. Euskal Herrian alokairua arautzealortu, eta orohar, etxebizitzaren eskubide bilakatu nahi baldin badugu, herri mugimendu, eragile sozial, sindikal eta politiko ezberdinok norabide horretan eragin beharko dugu. Hori horrela, gure aldarrikapen eta hausnarketak eragile ezberdinekin elkarbanatzeko hautua egingo dugu hurrengo hilabeteetan.

Nola garatu Euskal Herrian alokairuaren arautzearen aldeko borroka?

Euskal Herriko zazpi herrialdeetan bizi dugu problematika hau, eta modu ezberdinean eragiten duen arren, lekuan leku, eta leku batzuetan beste batzuetan baino dimentsio handiagoa hartzen duen arren auzi honek, **Herri gisa aurre egiteko problematika** dela deritzogu. Euskal Herriko herritarren gehiengoari eta gazte orori eragiten digun auzia dela jakitun, Nazio ikuspegiz aztertu, eta Herri mailako pausuk eman beharko di-

tugula uste dugu. Eta gure txostenak ere norabide horretan ekarpena egiteko asmoa du.

Proposamen honek nazio ikuspegia izan eta nazio ikuspegitik eragin nahi du, eta norabide horretan, **Euskal Herriko erakunde administratiboetako gobernu ezberdinei etxebizitzaren problematikari erantzuna eman diezaiotela exijitzen dugu.** Herri burujabe izan nahi baldin badugu, beharizan sozial nagusiei bertatik erantzunez hasi behar dugu. Bide honek existitzen diren bitartekoak erabili, eta Estatuaren injerentzia eta trabei aurre egitea eskatzen du ezinbestean, soilik Herri gisa jokatzuz bermatu ahal izango baititugu burujabetza eta eraldaketa soziala. Eusko Legebiltzarretik eta Nafar parlamentutik alokairuaren arautzea ahalbidetuko duen legeak garatu behar dira, nazio ikuspegiz egindako bulkada herritarra izanik erregaia, eta Estatuaren edo auzitegi konstituzionalaren erasoei eutsi eta erantzunez. Eta etxebizitza eskubidearen defentsa eta aldarria egingo duen mugimendu sozial, sindikal eta herritarra izango da honen berme bakarra.

Euskal Herriak gaur gaurkoz bizi duen demokrazia eta burujabetza falta nabarmenak dira, eta Nafar Parlamentuaren eta Eusko Legebiltzarren dozenak lege botatuz auzitegi konstituzionalak azken urteetan. Espainiar Estatuaren eta 78ko erregimenaren izaera antidemokratikoa, eta oligarkiaren eta elite ekonomikoen mesedetako estatu aldaezinaren adibidenabarmena.

Horrenbestez, **burujabetzara bidea izango da eraldaketa sozialera eramango gaituena**, bata ezin baitaiteke bestea gabe ulertu. Horrela, **eraldaketa soziala helburu duten aldarrikapenak kalean eraiki, eta euskal parlamentu ezberdinak horiek betearaztera bultzatu beharra ere ezinbestekoa izango da;** bai etxebizitza eskubide bilakatzeko zein gazte eta herri sektoreen bizi baldintzak hobetu eta eraldaketa soziala bultzatzeko.

Nafar Gobernuak zein Eusko Jaurlaritzak 78ko erregimenaren eta Auzitegi Konstituzionalaren erasoan aurrean duten inobilismoak ere ez gaitu inora eramango. Gauzak horrela, burujabetza aldarrikatuzetik praktikara eramatearen beharra ezinbestekoa izango da, eta kaleko aldarrikapenak hori barnebildu eta gazteon zein herri sektore ezberdinen bizitzen mesederako politikak baldintza eta aitzakiarik gabe exijitu behar ditu. **Euskal Herriko gehiengo sozialak defendatzen duen eraldaketa sozialera bidean pausak determinazioz eman behar dira,** Euskal Herritik eta bestelako Euskal Herri baten alde.

Zeintzuk dira gazteok alokairuaren arautzearen aldeko borroka bultzatzeko arrazoiak?

Etxebizitzaren espekulazioaren biktimak herri sektore ezberdinak gara, eta norabide horretan, **eragile sozial ezberdinen arteko sinergiek eramango gaituzte etxebizitza eskubide bilakatzera. Modu horretan, gazteon ekarpena ezinbestekoa izango da,** eta baditugu borroka honetan lehen lerroan egoteko hainbat arrazoi:

- 1. Gazteok sektore bereziki prekarizatua gara.** Gazteon langabezia tasa (2020an %42 hazi zen 25 urtetik beherakoen langabezia tasa) izugarria da eta lan baldintza bereziki prekarioak ditugu; eta honek, etxebizitzara sarbidea ezinezko bihurtzea dakarkigu, gazteen %45 inguru emantzipatzeko nahia burutu ezinik egotera. Lehenago azaldu bezala, burujabe izan eta bizi proiektu bat garatu ahal izateko baldintza ezinbestekoa da emantzipazioa. Gazteon larrialdi egoeraren aurreko beharrezko neurria da beraz alokairuaren arautzea.

2. Gazte mailako proposamen eta programa politiko propioak behar dira, baina momentuan, **herri sektore eta pertsona zaurgarri guztiok behar-beharrezkoak ditugun urgentziatzko neurriak hartzea ezinbestekoa da.**
3. **Gazteontzako programa espezifikoko duinak sortu ahal izateko pausua ere izango delako**, programa horiek etxebizitzaren eta alokairuaren eremua arautzea izan behar dutelako.

Zeintzuk dira alokairuaren arautzearen gakoak?

- ⇒ **Gehienezko alokairua zehaztearen beharra:** alokairua merkatuen legeek arautzen dute soilik, eta horrek espekulazio ikaragarria sortzen du etxebizitza bezalako eskubide eta behar material batekin. Gutxieneko soldata existitzen den moduan, eta beraz, soldata arautzen den bezalaxe, gaur gaurkoz beharrezkoa da alokairua ere arautzea, eta gehienezko alokairu bat ezartzea.
 - Horrek etxe jabe handiei eta funts putreei eragin behar die bete-betean, alokairuaren gehiengo prezioa arautuz, eta zigor gogorrek ezarriz horiek betetzen ez baldin badira.
- ⇒ **Nazio ikuspegia eta lekuan lekuko problematikak identifikatzeko gaitasuna:** nazio mailako ekarpena egitea da gure xedea, zeinak erakunde administratibo ezberdinen bidez bultzatu nahi duen alokairuaren arautzearen garapena. Gainera, tokian tokiko problematika identifikatzeko gaitasuna izan behar du alokairuaren arautzeak. Hau da, problematika larriagoa den lekuetan esku hartze zehatzak ahalbidetu beharko lituzke horrelako arau batek: merkatu tenkatua duten eremuetan eragin ahal izateko, espekulazio bortitzenari ondo aurre egiteko eta gentrifikazioa ekiditeko.
 - Etxebizitza merkatu tenkatua duten eremu horiek identifikatzeko mekanismo egokiak ezarri beharko dira, eta horrela, Euskal Herrian etxebizitzari dagokionez existitzen diren problematika ezberdinei aterabidea emateko baliatu: besteak beste gentrifikazioari, turistifikazioari eta funts putreei.
- ⇒ **Alokairuak pertsona edo gazte baten diru sarreren %15 izan behar du gehienez:** esfortzu ekonomikoak bizi baldintza prekarioetara ez eramateko, eta bizitza duina izateko.
- ⇒ Horrez gain, etxebizitza politika oro bezalaxe, **alokairuaren arautzea parke publikoa handitzeko norabidean** egin behar da.
- ⇒ **Ikasle pisuak:** Alokairuaren arautzeak haien herrietatik urrun ikasten duten milaka ikasleren egoera kontuan hartuko behar du, beraz, hauen kontratuak laburrak izan arren, alokairuaren arautzearen barruan sartu beharko lirateke.
- ⇒ **Alokairu-prezioen erreferentzia indizea:** neurgailu hau zehazteko mekanismo egokiak kontenplatu behar dira, eta herritarrek erreferentzia indizearen inguruko informazioa izatea bermatu behar da.



Alokairuaren arautzeaz gain: zer eskaintzen digute erakundeek gazteoi? Zer eskaini beharko ligukete?

Hego Euskal Herrian Nafar Gobernuak Emanzipa eta Eusko Jaurlaritzak Gaztelagun izeneko programak ditu martxan gazteon emantzipazioa bultzatzeko. Bi programa horiek, gabezia ikaragarriak dituzte gazteon emantzipazioa bultzatzeko, eta horrez gain, diru-laguntza edo presazioetara mugatzen diren heinean, merkatuaren logika bere horretan iraunaraztea dakarte.

Gaztelaguni dagokionez, Eusko Jaurlaritzak 2021eko otsailean aurkeztutako balorazio txostenaren arabera, programaren helburuen %36 bete dira bakarrik, beraz, programa porrot absolutua izan da. Hurrengoak dira programaren balorazioaren ezaugarri aipagarrietako batzuk:

1. 18-35 urte bitarteko eta emantzipatu gabeko 1000 pertsonako 11 pertsonari ematen zaio laguntza gaur gaurkoz. Honek, argi erakusten du ez duela inongo gaitasunik gazteon emantzipazioa bultzatu eta programa gazteon beharrezanetara egokitzen den sarbide erreal bat planteatzeko.
2. Diru laguntzak jasotzen dituzten pertsonen batz besteko adina 29 urtekoa da. Honek argi erakusten du ez duela gaitasunik emantzipazio adina jaisten laguntzeko. Eta gazte gehienontzako programara sarbidea ia ezinezkoa da: adibidez, 2 urteko diru sarrerak kontuan hartzen dira, gazteon egoera ezegonkorak aintzat hartzen ez direlarik.
3. Soilik diru laguntzetan oinarritzen den programa izanik, eta alokairuaren arautzea bultzatzen ez duelarik, etxebizitzaren espekulazioarekin jarraitzea ahalbidetzen du.

Emanziparen kasuan ere, diru laguntzetara mugatzen da programa, merkatuaren logika kapitalista iraunarazten du, mugatzeko inongo anbiziorik gabe. Horrez gain, 650€ izan behar da alokairuaren gehieneko prezioa; horrela, gaur gaurkoz Nafarroan daude hainbat errealitate ez ditu kontenplaten, zeintzutan alokairuaren prezioa hortik gorakoa den.

Honenbestez, ondorioa argia da, **Euskal Herrian gazteon larrialdi egoerari erantzuna ematea nahi baldin badugu, gazteon emantzipazioa bultzatzeko programen izaera errotik aldatu behar da, eta programa horiek eraldaketa sozialaren mesedetan jarri behar dira.** Gauzak horrela, ondorengoak kontuan hartu beharko lirakeke gazteon emantzipazioa bultzatzeko programa baten sorrerari dagokionez:

- ⇒ Alokairuaren arautzean oinarritu beharko lirakeke, eta norabide horretan etxebizitzaren espekulazioari aurre egiteko gaitasuna izan behar dute.
- ⇒ Gazteon emantzipazio adina errotik jaisteko programak izan behar dira. Hego Euskal Herrian 30 urte inguruan dago batz besteko emantzipazio adina.
- ⇒ Programa hauetara sarbidea ezin da gazteriaren gehiengoarentzat ezinezkoa izan. Informazio argia, eta alokairu sozialerako sarbidea gazteon beharrezan eta errentetara egokitu behar dira: gazteon emantzipazioa bultzatzeko programek gazteok diru sarreren %15-a alokairura bideratzeko gehieneko muga izan beharko lukete.

ALTERNATIBAK ERAIKIZ

Udalgintza proiektuak

Euskal lurraldea gobernatzen duten instituzioek etxebizitza eskubide bezala bermatzeko duten ezintasunaren aurrean, maila lokalean, zenbait udal gobernuk urratsak emateari ekin diote. Hortaz, Hego Euskal Herrian, herri jakin batzuetan sustatutako udalgintza proiektuen bidez, gazteok gure bizi proiektuak garatzen hasteko, oinarrizko neurri edota proiektu komunitarioak jartzen ari dira martxan. Hiru logika nagusitan kokatu ditzakegu herrietatik garatzen ari diren laguntza eta proiektu ezberdinak:

- ⇒ **Alokairu publiko soziala eta etxebizitza publikoak:** herrietatik garatzen ari diren proiektuen funtsa, etxebizitza izateko eskubidea bermatzeko apustuan, Eusko Jaurlaritza zein Nafarroako Gobernutik dauden hutsuneei aurre egitea da. Horrekin lotuta, logikaren ardatz nagusia, etxebizitza parke publikoa handituz, etxebizitza eskubidea bermatzea da, etxebizitza sozialen eskuragarritasuna areagotuz.
- **Alokairu publiko soziala:** jabetza publikoa izatearen logikan kokatzen da. Aurrez aipatu bezala, espainiar Estatuan hegemoniko den ereduari lotuta, Babes Ofizialeko Etxebizitzen kasuan, jabetza pribatua da nagusi. Honi aurre eginez, parke publikoaren erabilera areagotuz, herritarren beharretara moldatuko diren baldintzak ezarri eta etxebizitza eskuragarri egiteko logikan kokatzen dira.
- **Etxebizitza proiektu komunitarioak:** eredu berritzaile hauek, gazteon emantzipazioan lehen urratsa emateko aukera izateaz gain, elkarbizitzan oinarritutako bizi eredu komunitarioa sustatzea bilatzen dute. Proiektu hauek balio berezia dute, sistema kapitalista heteropatriarkalak ezartzen digun etxebizitza eta bizi eredu eraldatzeko potentzialitatea baitaukate. Oneretako udalak sustatutakoa izan da Euskal Herrian abiatutako lehenengo proiektua baina beste zenbait herritan hasi dira aipatutako proiektua oinarri gisa hartuta, eredu berriak markatzen. Jarraian aipatuko ditugun adibideak, gaur-gaurkoz martxan daudenak dira:

- *Oreretako gazteontzako etxebizitza komunitarioa.* Proiektu honetan parte hartu ahal izateko, 18 eta 30 urte bitarte izan behar dira eta herrian erroldatuta egon behar da. Bestalde, 26.000€ gordin baino gutxiagoko diru-sarrera izan behar da. Etxebizitzako gela bat alokatzen zaio udalari eta horren erabileraz gain, eraikinak dituen eremu komunitario guztiak erabili daitezke. Alokairua bi logikatan ordaintzen da, bate-tik, gazte bakoitzaren diru-sarreraren %15-a udalari emanda eta bestetik, denbora-bankuaren filosofian oinarrituz, hilabetero herriari eskainitako 9 orduren bidez, irabazi asmorik gabeko lanak eginez. Etxebizitzaren inguruko erabakiak etxekideek osatutako asanbladan hartzen dira eta udalarekin partekatutako mahai bat dago koordinazio eta jarraipenerako.
- *Usurbilgo belaunaldiarteko etxebizitza komunitarioa (Txirikorda).* Kasu honetan, 18-30 urte bitarteko gazteen eta 60 urtetik gorako helduen arteko etxebizitza izango da, oraindik eraikuntza fasean dagoena. Herrian erroldatutako biztanleak bizi ahal izango dira bertan eta alokairua diru-sarreraren %15-a izango da gazteen kasuan, helduen kasuan aldiz, pentsioaren arabera. Eredu honen erdigunean, belaunaldi arteko elkarbizitza eta zaintza jarri nahi dira, gazteen emantzipazioa ahalbidetuz, belaunaldi arteko komunitate bateratuz.
- ⇒ **Alokairua ordaindu ahal izateko diru laguntzak:** gazteak emantzipatu ahal izateko laguntzak dira, etxebizitza hartzeak dakartzan gastuei aurre egiten laguntzea delarik helburua. Aurrez ikusi dugun bezala, Gaztelagun bezalako programek ez dute bermatzen diru laguntzak jasotzea, finean, bizi dugun prekarietate egoerak ez baitigu aukerarik ematen ezarrita dauden irizpideetara iristeko ere askotan. Hortaz, udalerrri ezberdinetatik diru partidak luzatzeko laguntzak ematen zaizkie gazteei.
- ⇒ **Etxe hutsak erabiltzeko proposamenak:** zenbait udaletan jenderik gabeko etxebizitzak mobilizatu eta alokairu-erregimenean jartzeko apustua egin da ordenantzen bidez. Hala, etxebizitzaren funtzio sozialaren ikuspegitik, jenderik gabeko etxebizitzak arautzen dira, bizigarritasun eza deklaratzeko prozedura ezarrita, horrela izendatutako enplegatuaren gainean zergak ezarriz. Prozedura horren oinarria, pertsona batek kontsumorik erregistratzen ez duen bigarren etxebizitzaren (edo gehiagoren) gainean ezartzen da, udalean errolda bat osatuz. Etxebizitza hori alokairuan badago, ez da etxe huts gisa kontsideratzen, nahiz eta kontsumorik ez izan, baina bestela, aipatutako zerga ezartzen zaie. Nafarroako udal ezberdinetan, besteak beste, etxebizitza errolda horiek osatuta, Nasuvinsa enpresa publikoarekin harremanetan jarri eta etxebizitza huts horiek alokairuan jartzen dituzte, prezio duinean.

Bestelako etxebizitza proiektuak

Udalgintzatik sustatutako proiektu edo neurriez harago, zenbait etxebizitza kooperatiboren proiektuak loratzen ari dira zonalde batzuetan, adibidez, Donostiako Abaraska proiektua edota Gasteizko Bizikopon proiektua. Momentu honetan, familia ereduetan aldaketak ematen ari dira eta adineko pertsonak bizitzeko beste modu batzuk planteatzen ari dira, besteak beste. Errealitate hauei erantzunez, pribatuaren eta publikoaren arteko muga lausotuz, etxebizitza kooperatiben logika planteatzen ari da. Proiektu hauen muina, elkarbizitzan eta elkarzaintzan oinarritutako bizi eredu alternatibo bat sortzea da, jasagarria izango dena.

Proiektu hauek, Bartzelonako La Borda eraikitze prozesua hartzen dute erreferentzia eta eredu bezala. Prozesu luzeak izaten dira eta aurrera eraman ahal izateko, talde bat elkartu eta udalekin harremanetan, lur zesio bat lortu behar da, etxebizitza eraiki ahal izateko. Etxebizitza, kooperatibaren jabetza izango da, beraz, kapital sozial baten aportazioa egiten da etxebizitza kooperatibako kide izateko eta hilabetero, errenta bat ordaintzen da. Udalgintzan ikusitako ereduetan bezala, espazio komunak eta izaera kooperatibo eta komunitarioa sustatzen dira.



